

Xedapen Orokorrak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

7205

219/2007 DEKRETUA, abenduaren 4koa, Haurren eta Nerabeen Behatokia sortzen duena.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea onartzeak aurrerapen funtsezkoa eta halabeharrezkoa ekarri dio EAEko ordenamendu juridikoari. Orain arteko hutsune juridikoa betetzen du, izan ere, jarduera printzipioak eta eskumen- eta erakunde-esparrua zehazten ditu. Bestalde, testu bakar batean biltzen ditu oinarritzko eskubide guztiak, hain zuzen ere, beste baliabide arauemaile batzuk, hala autonomikoak nola estatalak edo nazioartekoak, haur eta nerabeen alde aitortzen dituztenak. Azken urte hauetan haurraren irudiak izan duen bilakaeraren gain egindako erregulazioak jaso eta egokitu ditu lege horrek; eta halaxe dauka jasota zioen adierazpenean: «Haurrak, gaurgero, ez dira babestu beharreko izakiak bakarrik, eskubidedun bihurtu dira, eta babestua izatea da, hain zuzen ere, eskubideetako bat».

Ikuspegi horretatik, alegia, jarduera publikoek izan duten bilakaeraren eta jarduerok haur zein nerabeen beharrian eta eskubideei egokitzearen ikuspegitik, beharrezkoa da baliabide eta tresna egokiak izatea haurtzarora eta nerabearoa ahalik ondoen ezagutzeko, garai hori ikertu eta aztertzeko eta sektore horretan diharduten administrazio publikoen eta gainerako entitate publikoen eta pribatuen jarduerari buruzko informazio zehatza gertatzeko; zertarako eta, ezagutza zientifikoa oinarri modura hartuta, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen eragina izan duten eremuetan aplikatutako politiken diseinua hobetzeko, eta aplikatutako politiken benetako eraginaren ebaluazioa eta garatutako programen eraginkortasuna bideratzeko.

Legeak Haurren eta Nerabeen Behatokia sortzen du 100. artikuluan, zeinaren eginkizunak diren azterlana, ikerketa, dokumentazioa, aholkularitza eta ebaluazioa. Behatokiaren izaera, eginkizunak eta funtzionamendua dekretu honetan zehazten dira.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailbuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren adostasunarekin eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko abenduaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

7205

DECRETO 219/2007, de 4 de diciembre, del Observatorio de la Infancia y la Adolescencia.

La aprobación de la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia ha supuesto un avance fundamental e indispensable en el ordenamiento jurídico vasco, sin duda porque colma un vacío jurídico definiendo los principios de actuación y el marco competencial e institucional y porque consigue reunir en un único texto el conjunto de derechos básicos que otros instrumentos normativos, de carácter autonómico, estatal o internacional, ya reconocen en favor de niños, niñas y adolescentes, pero también porque acierta a reflejar y a adecuar las regulaciones a la evolución que la figura del niño ha tenido en los últimos años que, como indica en su preámbulo, «ha pasado de ser objeto de protección a ser sujeto de derechos, siendo la protección uno de los derechos que le amparan».

En esta perspectiva de evolución y de continua adaptación de las actuaciones públicas a las necesidades y derechos de los niños, niñas y adolescentes, se hace necesario contar con instrumentos y cauces capaces de profundizar en el conocimiento de la realidad de la infancia y de la adolescencia, de fomentar la investigación y el estudio, la elaboración de información rigurosa sobre las actuaciones de las Administraciones públicas y sobre las demás entidades públicas y privadas que trabajan en el sector, con el propósito de mejorar el diseño de las políticas aplicadas en todos los ámbitos que abarca la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, sobre la base del conocimiento científico y de facilitar la evaluación del impacto real de las políticas aplicadas y la eficacia de los programas desarrollados.

A estos efectos, la Ley en su artículo 100 crea un Observatorio de la Infancia y la Adolescencia con funciones de estudio, investigación, documentación, asesoramiento y evaluación, cuya naturaleza, funciones y funcionamiento son determinadas mediante el presente Decreto.

En su virtud, y a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el día 4 de diciembre de 2007,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Haurren eta Nerabeen Behatokia sortzea eta horren antolaketa- eta funtzionamendu-erregimena arautzea da dekretu honen helburua.

2. artikulua.– Izaera juridikoa eta atxikimendua.

Haurren eta Nerabeen Behatokia azterketa-, lankidetza- eta aholkularitza-organoa da. Gizarte gaietan eskumenak dituen Sailari atxikitzen zaio gizarte ongizateko arloan eskumena duen Zuzendaritzaren bidez.

3. artikulua.– Helburua eta eginkizunak.

1.– Haurren eta Nerabeen Behatokiaren helburua, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea aplikatuz, honakoa da: haurren eta nerabeen errealitatea eta aplikatzen diren politiken eragina etengabe aztertzea.

2.– Haurren eta Nerabeen Behatokiak, helburu hori lortze aldera, honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Haurren eta nerabeen bizi-baldintzak eta beharri-zanak aztertzea eta egoera hori hobetzeko jarduerak eta programak proposatzea administrazio eskumendunei.

b) Hautzaroa eta nerabezaroa atenditzeko arloan Administrazioak dituen jarduerak ebaluatzea.

c) Hala eskatzen duten administrazio publikoei aholkuak ematea arriskuan edo babesik gabe dauden adingabeak babesteko eta zigor-adinik ez duten pertsonak atenditzeko.

d) Administrazio eskumendunei informazioa ematea ordenamendu juridikoa haurren eta nerabeen beharri-zanei egokitzeko, eta araudi berriak edo indarrean daudenak aldatzeko proposatzea.

e) Gizarte Ongizateko EAeko Kontseiluko Haurrak eta Nerabeak Zaintzako Batzorde Sektorial Iraunkorra aldizka informatzea, nola eta, Behatokiaren ekimenez gertatutako txosten eta azterlanak bidaliz; eta Batzordeari aholkuak ematea hala eskatzen duenean, betiere Behatokiak garatutako jardueren gaineko txostena taxutuz urtero. Haurrak eta Nerabeak Zaintzako Batzorde Sektorial Iraunkorrak Behatokiaren urteko programa zehazten parte hartuko du.

f) Gizarte Zerbitzuei buruzko EAeko Informazio Sistemarekin batera egingo du lan, batik bat gomendioak aurkeztuz, haurrak eta nerabeak atenditzerakoan eta babestekoan zerbitzuek erabilitako informazio-adierazleak eta –sistemak hobetzeko proposamenak eginez eta datuak biltzerakoan irizpideak bateratuz.

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto la creación del Observatorio de la Infancia y la Adolescencia, así como la regulación de su régimen de organización y funcionamiento.

Artículo 2.– Naturaleza jurídica y adscripción.

El Observatorio de la Infancia y la Adolescencia es un órgano de estudio, evaluación, colaboración y asesoramiento técnico que se adscribe al Departamento competente en materia de asuntos sociales, a través de la Dirección competente en materia de bienestar social.

Artículo 3.– Misión y funciones.

1.– El Observatorio de la Infancia y la Adolescencia tiene como misión analizar de forma permanente la realidad de los niños, niñas y adolescentes y el impacto de las políticas desarrolladas en aplicación de la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de atención y protección a la infancia y la adolescencia.

2.– Para la consecución de dicho fin, el Observatorio de la Infancia y la Adolescencia desarrollará las siguientes funciones:

a) Estudiar las condiciones de vida y las necesidades de los niños, niñas y adolescentes y proponer a las administraciones competentes actuaciones y programas dirigidos a su mejora.

b) Evaluar las actuaciones de la Administración en el ámbito de atención a la infancia y la adolescencia.

c) Asesorar a las Administraciones públicas que lo requieran en relación con las actuaciones de protección a las personas menores de edad en situación de riesgo o de desamparo y de atención a las personas infractoras menores de edad penal.

d) Informar a las administraciones competentes sobre la adecuación del ordenamiento jurídico a las necesidades de la infancia y la adolescencia y proponerles la adopción de nuevas regulaciones o la modificación de las existentes.

e) Informar periódicamente a la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y a la Adolescencia del Consejo Vasco de Bienestar Social mediante la remisión de los informes y estudios elaborados a iniciativa del Observatorio y asesorarla cuando así lo requiera, emitiendo en todo caso un informe anual de las actuaciones desarrolladas desde el Observatorio. La Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y a la Adolescencia intervendrá, por su parte, en la definición del programa anual del Observatorio.

f) Colaborar con el Sistema Vasco de Información sobre Servicios Sociales, en particular formulando recomendaciones y propuestas tendentes a mejorar los indicadores y sistemas de información utilizados por los servicios en materia de atención y protección a la infancia y a la adolescencia y facilitando la unificación de criterios en la recogida de datos.

g) Dokumentazio zientifikoa zabaltzeko jarduerak (azterlanak, inkestak, ikerlanak eta argitalpenak) bul-tzatzea eta komunikabideetan haurtzaroaz eta nerabe-zaroaz ematen duten informazioaren tratamendua ho-betzea.

h) Antzeko izaera duten beste organo batzuekin par-te hartzea eta harremanak izatea eta profesionalen eta adituen arteko elkarlana sustatzea, arlo horretako elkar-trukeak, ikerketak eta lanak bideratze aldera.

i) Adskripzio Saileko titularrak bere esku utz ditzan gainerako zereginak gauzatzea.

4. artikulua.— Isilpekoa.

Behatokiak isilpean zaindu beharko ditu haurrak eta nerabeak atxikituta eta babestearen arloan izandako go-rabeherak. Behar diren neurriak hartuko ditu, intimi-taterako eskubidea aplikatuz, eskuetan duen informa-zioaren edo informazioa jasotzen duten fitxategi eta erregistroen tratamendu konfidentziala bermatzeko, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan araututako moduan.

5. artikulua.— Funtzionamendua eta erregimen ju-ridikoa.

1.— Haurren eta Nerabeen Behatokiaren funtziona-mendua iraunkorra da. Bere egoitza gizarte zerbitzuen arloa duen Sailean izango du, zeinari atxikita egongo baita.

2.— Haurren eta Nerabeen Behatokiaren funtziona-menduarentzako jarraibide zehatzak gizarte ongizatear-en arloan eskumena duen zuzendariak emango ditu.

3.— Adituen lankidetzak eska dezake Behatokiak, zeintzuk, aztergaien arabera, bidezkotzat jotzen baiti-tu Behatokiak bidezko txosten teknikoak gertatzeko. Haurren eta nerabeen atentzioarekin lotutako entitate pribatuen lankidetzak ere eskatu ahal izango du. Orga-no eskumendunek egokitzen dituzten lankidetzak hitzarmenak edo —baliabideak gauzatzea sustatuko du Behatokiak.

6. artikulua.— Erregimen ekonomikoa.

1.— Aurrekontu izendapen zehatzen bidez finantzatu-tako Haurren eta Nerabeen Behatokia, zeintzuk gi-zarte ongizateko arloan eskumena duen Sailburuorde-tzari dagozkion izendapenetan txertatuko diren, EAE-ko aurrekontu orokorren barruan.

2.— Desplazamenduko kalte-ordainak kobratzeko, zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsai-laren 2ko 16/1993 Dekretuan izaera orokorrez jasota-ko zenbatekoak hartuko dira kontuan.

g) Impulsar las actividades de difusión de la docu-mentación científica (estudios, encuestas, investigacio-nes y publicaciones), así como la mejora del tratamien-to de la información sobre la infancia y la adolescencia en los medios de comunicación.

h) Participar y mantener relaciones con otros órga-nos de similar naturaleza, fomentando los encuentros entre profesionales y personas expertas para facilitar el intercambio de experiencias, investigaciones y trabajos en esta materia.

i) Aquellas otras que le encargue la persona titular del departamento de adscripción.

Artículo 4.— Deber de reserva.

El Observatorio actuará con la obligada reserva en el ámbito de la atención y protección a la infancia y la adolescencia, adoptando las medidas oportunas para ga-rantizar, en aplicación del derecho a la intimidad, el tra-tamiento confidencial de la información con la que cuente y de los ficheros o registros en los que conste di-cha información, en los términos regulados en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

Artículo 5.— Funcionamiento y régimen jurídico.

1.— El Observatorio de la Infancia y la Adolescencia funcionará de forma permanente, con sede en el Depar-tamento competente en materia de servicios sociales, al que se encuentra adscrito.

2.— Las instrucciones precisas para el funcionamien-to del Observatorio de la Infancia y la Adolescencia se-rán dictadas por el o la Directora competente en mate-ria de bienestar social.

3.— El Observatorio podrá solicitar la colaboración de aquellas personas expertas que, en función de los te-mas a tratar y con el fin de elaborar los informes técni-cos pertinentes, estime convenientes, así como la de las diversas entidades privadas vinculadas a la atención a la infancia y a la adolescencia. En tal sentido, promo-verá la formalización por los órganos competentes de los convenios o instrumentos de colaboración que se con-sideren idóneos.

Artículo 6.— Régimen económico.

1.— La financiación del Observatorio de la Infancia y la Adolescencia se realizará a través de las consigna-ciones presupuestarias específicas, que se incluirán en las correspondientes a la Viceconsejería competente en materia de bienestar social en los Presupuestos Gene-rales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.— Las indemnizaciones por desplazamiento se per-cibirán en las condiciones y con el límite de cuantías pre-vistas con carácter general en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Behatokia eratzea.

Haurren eta Nerabeen Behatokia osatze aldera, alde zuzenetik bere antolamendua zehaztu eta lanpostuen zerrenda aldatuko da.

Bigarrena.– Indarra hartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko abenduaren 4an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

7206

EBAZPENA, 2007ko azaroaren 30ekoa, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Errektore hautatzeko Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko Agindua emateko dena.

AURREKARIAK

UPV/EHUko Estatutuen 249. artikulua zehazten du errektorea unibertsitateko kideek hautatzeko dute, hautaketa zuzenaz eta sufragio unibertsal, libre eta sekretuaz.

Arautegi honen bidez, 2004. urtean onartu zen arautegia 4/2007 Legea egokitu beharra dago (lege horrek Unibertsitateen Lege Organikoa aldarazi du) hauteskunde taldeak aldatu egin baitira, eta, bestalde gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako indarrean dagoen legedia ere izan behar da kontuan.

Gobernu Kontseiluak, 2004ko uztailaren 22an egin dako bileran, Estatutuak garatzeko prozedura ezarri zuen, eta 2007ko azaroaren 29an, organo berak, Errektore Hautatzeko Arautegia onartu zuen, eranskinean jasotako moduan.

Azkenik, UPV/EHUko Estatutuaren 258.1. d) artikulua dio, idazkari nagusiak bermatu behar duela UPV/EHUko erabakiak argitaratzea; eta, bestalde,

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Constitución del Observatorio.

El Observatorio de la Infancia y la Adolescencia se constituirá tras la definición organizativa del mismo y la correspondiente modificación de la Relación de Puestos de Trabajo.

Segunda.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 4 de diciembre de 2007.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

7206

RESOLUCIÓN de 30 de noviembre de 2007, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación del reglamento de elección del rector o rectora.

ANTECEDENTES

El artículo 249 de los Estatutos de la UPV/EHU establece que el Rector o Rectora será elegido o elegida por la Comunidad Universitaria, mediante elección directa y sufragio universal libre y secreto.

La presente Normativa pretende adecuar el texto reglamentario aprobado en el año 2004 a las nuevas previsiones de la Ley 4/2007 por la que se modifica la Ley Orgánica de Universidades, en cuanto a la definición de los sectores electorales, así como a la legislación vigente en materia de igualdad entre mujeres y hombres.

Seguido el procedimiento de desarrollo estatutario que el Consejo de Gobierno estableció en su sesión de 22 de julio de 2004, con fecha 29 de noviembre de 2007 ese mismo órgano aprobó el texto del Reglamento de Elección del Rector o Rectora en los términos recogidos en el anexo.

A su vez, el artículo 258.1 de los Estatutos de la UPV/EHU en su apartado d), encomienda al Secretario General garantizar la publicidad de todos los acuer-